AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean Dekretu hau.

Gasteiz, 1990.eko maiatzak 15.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

DISPOSICION FINAL SEGUNDA

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el B.O.P.V.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 15 de mayo de 1990.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

## LEHENDAKARITZA, ZUZENTZA ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA

1650

128/1990 DEKRETUA, maiatzaren 8koa, zeinen bidez Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailaren egitura organikoa aldatzen baita.

Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailaren egitura organikoa ezarri zuen apirilaren 19ko 89/1988 Dekretuak, Zuzentza Sailordetza eratzen duelarik, ezaugarri bereizgarriak aitortzen dizkio, izan ere, Administrazioaren baitako organua izanik ere, ez baitu, besteen kasuan gertatzen den bezala, Autonomi Elkarteko errealitate administratibora bertara zuzentzen bere iharduera, Botere Judizialera baizik; horren zerbitzura baitago Zuzentza Administrazioa.

Zuzentza Sailordetza, sortu zenetik bereganatu zitzaizkion zereginak burutze bidean, eta Zedarriketa eta Kokaguneari buruzko Legean aurrikusitakoen garapenarekin batera, aparteko ahalegina ari da egiten urte gutxiren buruan orain arte egin ez den guztiari ekin nahian, Euskal Autonomi Elkarteko Zuzentzaren eskasia eta gabeziei aurre eginez eta dauden bideak horren zerbitzura egokituz.

Horretarako, bi frentetan egin du aurrera, batez ere: alde batetik, obrei, ondareari eta baliabideei dagokienez, eta, bestetik, antolakuntzari eta informatikari dagokienez. Azken arlo honetan, Euskal Autonomi Elkarteko Zuzentza Administrazioa oso-osoan informatizatzeko plan bat egin da. Bulego Judizialen eredu zaharra baztertuz, zerbitzu orokorreko sail judizialaren eredua hautatu da bertan, gaur egungo gizarteak eskatzen duenarekin bat etorriko dena, era koherentean antolatuko dena, informatizatua eta progresoak eskaintzen dituen teknologia berrien arabera egituratua, Europa guztian nagusitzen ari denaren antzekoa.

Eraginkortasun eta razionaltasun printzipioetan oinarriturik, era nabarmenean lagunduko du Plan horrek Euskal Autonomiko epaitegi eta auzitegiek berezkoak dituzten zerbitzu administratiboen berrikuntza eta hobekuntzan, gizarte moderno eta demokratiko batetan epaigai denak eskatzen dituen gutxienezkoei erantzun diezaieten.

Guzti hori horrela, Plan hori gauzatzeko ordua iritsi delarik, komenigarria da Zuzentza Sailordetza, proiektu horiei aurre egin ahal diezaien, beharrezko duen autonomia informatikoaz hornitzea; are gehiago proiektu horiek berezko konplexutasuna dutelarik eta atergabeko arreta eskatzen dutelarik azkar eta arinta-

## DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, JUSTICIA Y DESARROLLO AUTONOMICO

1650

DECRETO 128/1990, de 8 de mayo, por el que se modifica la estructura orgánica del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico.

El Decreto 89/1988, de 19 de abril, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico, configura a la Viceconsejería de Justicia con unos caracteres singularizadores, pues se trata de un órgano de la Administración que, a diferencia de los demás, no proyecta su actividad hacia la propia realidad administrativa de la Comunidad Autónoma, sino al Poder Judicial, a cuyo servicio está la Administración de Justicia.

La Viceconsejería de Justicia, en el ejercicio de las funciones que tiene atribuidas desde su creación y en paralelo con el desarrollo de las previsiones de la Ley de Demarcación y Planta Judicial, está realizando un excepcional esfuerzo para tratar de acometer en pocos años, todo lo que no se ha hecho hasta la fecha, supliendo las insuficiencias y carencias de la Justicia en el País Vasco y adecuando los medios al servicio de la misma.

A tal fin ha ido avanzando, sobre todo, en dos frentes, por un lado, en materia de obras, patrimonio y recursos, y, por otro, en materia de organización e informática. En este último terreno, se ha elaborado un Plan de Informatización Integral de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma del País Vasco, que desechando el modelo tradicional de Oficina Judicial ha optado por un modelo de departamento judicial de servicios generales, acorde con el que la sociedad actual demanda, coherentemente organizado, informatizado y estructurado con arreglo a las nuevas tecnologías que el progreso ofrece y similar al que se va imponiendo en el resto de Europa.

Este Plan, inspirado en principios de eficacia y racionalidad, contribuirá de forma sensible a la modernización y mejora de los servicios administrativos propios de los Juzgados y Tribunales en el País Vasco, de manera que respondan a las exigencias mínimas que demanda el justiciable en una sociedad democrática moderna.

Por todo ello, llegado ya el momento de llevar a cabo la realización de dicho Plan, se hace aconsejable dotar a la Viceconsejería de Justicia de la autonomía necesaria en materia informática para acometer por sí misma tales proyectos, máxime cuando éstos presentan una complejidad específica y requieren un

sunez burutzearren ajuste eta egokitzapen desberdinak. Horrek, halaber, autonomia funtzional horri dagozkion arauetan beharrezko diren aldakuntzak egitea eskatzen du, ahalik eta erarik egokienean bermatzearren adierazitako helburuak erdietsiko direla.

Azaldu diren arrazoi horiek, beraz, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailaren egitura organikoa ezarri zuen apirilaren 19ko 89/1989 Dekretua aldatzea eskatzen dute, eta Zuzentza Sailordetzaren baitan berariazko Kontratazio Mahaia sortzea, Zuzentza Administraziorako ondasunak erosteko eta zerbitzu informatikoak kontratatzeko orduan nahitaezkoa den operatibitatea eskain diezaion hari. Neurri horren osagarri bidezko diren beste zenbait ere hartu beharko dira Euskal Autonomi Elkarteko Zuzentza Administrazioaren eta Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu informatikoen artean beharrezko den koordinazioa izan dadin, beti ere Organu Judizialen independentziari sor zaion errespetua izanik.

Orain arte esandakoa dela-eta, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburuak hala proposaturik, eta Jaurlaritza Kontseiluak 1990.eko maiatzaren 8ko bilkuran aztertu eta onartu zuelarik, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*— Xedea

Honen bidez aldatu egiten da Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailaren egitura organikoa ezarri zuen apirilaren 19ko 89/1988 Dekretua: 19. atala aldatzen da, 19. bis atala sortzen, eta 20. eta 21. atalak aldatzen, era berean.

*2. atala.*— 19. atalaren aldakuntza

Puntu berri bat gehitzen zaio, 3. zenbakia duena; honela geratuko da idatzita:

«3. Zabalkunderako unitate administratiboa Zuzentza Sailordetzaren menpe egongo da, eta zeregin hauek izango ditu:

a) Estatistika judizialak egitea, Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística —(E.E.E./I.V.E., EUSTAT)— delakoaren artezpideekin bat etorriz.

b) Hiritarrari argibide orokorrak eskaintze-bidean koordinaketa egitea eta Sailordetzak berea duen ihardute-eremuaren inguruko arrenkurak eta iradokizunak jasotzea.

c) Zuzentza Sailordetzaren argitalpenak kudeatzea eta zabaltzea, eta orobat berak dirulaguntzen edo lankidetzarako bestelako medioen bidez eskuhartzen dueneko argitalpenei dagokienez; guzti hori Dekretu honetako 18.b) atalean xedatutakoarekin bat etorriz.

*3. atala.*— 19 bis atala sortzea

«19 bis atala.—

1. Zuzentza Sailordetzari atxikita egongo den Kontratazio Mahaia sortzen da, Euskal Autonomi Elkarteko Zuzentza Administraziorako izango diren ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko izango dena; honako kontratazio modalitate hauek baliatu ahal izango ditu horretarako:

estado permanente de alerta para efectuar con rapidez y agilidad los ajustes y adaptaciones diversas. Ello requiere, asimismo, la realización de las modificaciones precisas en las normas que afecten a ese autonomía funcional a fin de garantizar, de la manera más adecuada posible, la consecución de los objetivos señalados.

Las razones apuntadas recomiendan, por consiguiente, la modificación del Decreto 89/1989, de 19 de abril, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico, para crear en el seno de la Viceconsejería de Justicia una Mesa de Contratación específica que proporcione la operatividad imprescindible en la adquisición de bienes y la contratación de servicios informáticos destinados a la Administración de Justicia. Medida que deberá complementarse con cuantas sean pertinentes a fin de lograr la necesaria coordinación entre los servicios informáticos de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma de Euskadi y del Gobierno Vasco, dentro del escrupuloso respeto a la independencia de los Organos Judiciales.

Por cuanto antecede, a propuesta del Consejero de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico, previa aprobación de la Presidencia, y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión de 8 de mayo de 1990,

DISPONGO:

*Artículo 1.*— Objeto

Se modifica el Decreto 89/1988, de 19 de abril, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico mediante la modificación del artículo 19, la creación del artículo 19 bis, así como la modificación de los artículos 20 y 21.

*Artículo 2.*— Modificación del artículo 19.

Se introduce un nuevo punto, el número 3, con la siguiente redacción:

«3. La unidad administrativa de Difusión dependerá directamente del Vicececonsejero de Justicia con las funciones siguientes:

a) Elaborar las estadísticas judiciales, de acuerdo con las directrices del Instituto Vasco de Estadística/Euskal Estatistika Erakundea -(E.E.E./I.V.E. (EUSTAT)-.

b) Coordinar el ejercicio de las funciones de información general al ciudadano y la recepción de quejas y sugerencias en relación con el área de actuación propia de la Viceconsejería.

c) Gestionar y difundir las publicaciones de la Viceconsejería de Justicia y aquellas otras en las que ésta intervenga mediante subvenciones y otros medios de colaboración, todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 18.b) del presente Decreto.

*Artículo 3.*— Creación del artículo 19 bis

«Artículo 19 bis.-

1. Se crea una Mesa de Contratación adscrita a la Viceconsejería de Justicia para la adquisición de los bienes y servicios destinados a la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma mediante las siguientes modalidades contractuales:

a) Horniketetarako kontratuak.

b) Apirilaren 11ko 77/1983 Dekretuaren 2. atalaren barne dauden kontratuak, ondasun eta zerbitzu informatikoei dagozkienak; aipatutako Dekretu horren 3. atalean adierazten direnak joko dira holakotzat.

c) Aurrekoen antzeko izaerako beste edozein.

Aurreko prebisiotik kanpo geratzen dira «sistema informatiko horizontalei» dagozkien kontratuak, hau da nominak, langilegoaren erregistroa, kontabilitatea eta aurrekontua gaitzat dituztenak edo, hala izanez gero, Eusko Jaurlaritzako Antolakuntzarako eta Informatikarako Batzorde Teknikoak halakotzat definitzen dituenak.

2. Zuzentza Sailordetzako Giza Baliabide eta Ekonomi Kudeaketarako Zuzendaria da aurreko zenbakiko a), b) eta c) letretan azaltzen diren kontratuak gauzatu eta formalizatzeko beharrezko diren ekintzak egiteko eskuduntza duen Kontratazio Organua.

3. Lehendakari batek, bokalek eta idazkariak osatuko dute Kontratazio Mahaia.

a) Giza Baliabide eta Ekonomi Kudeaketarako Zuzendariak izendatuko du lehendakaria, eta Zuzentza Sailordetzaren ordezkari bat izango da.

b) Honako hauek izango dira bokalak:

— Zuzentza Sailordetzaren bi ordezkari, kontratuaren gaia zein iharduera arlori dagokionaren arabera, Giza Baliabide eta Ekonomi Kudeaketarako Zuzendariak izendatuko dituenak.

— Ogasun eta Finantza Saileko Kontuhartze Zuzendaritzaren ordezkari bat, Kontuhartze Zuzendariak izendatua.

— 1.b) zenbakian azaltzen diren kontratazioetan, Administrazio eta Funtzio Publikorako Sailordetzako Antolaketa eta Sistemen Zuzendaritzaren ordezkari bat, Zuzendari horren titularrak izendatua.

c) Giza Baliabide eta Ekonomi Kudeaketarako Zuzendaritzari atxikitako teknikari bat izango da idazkaria, Zuzenbidean lizentziatua, hizpidea bai baina hautespiderik ez duelarik izango.

4. Kontratazio Mahaiaren zereginak hauek izango dira: lehiatzaileek aurkeztutako agiri juridikoak aztertzea, eskaintzak agertaraztea eta kontratazio organuari kontratuen esleipenerako proposamena egitea.

5. Zuzentza Sailordetzako unitate administratiboek erredaktatuko dituzte oinarri-arau teknikoen pleguak, kontratazio espedientearen jatorriaren arabera.

6. Administrazio baldintza partikularren pleguak eta txosten juridikoa idaztea Giza Baliabide eta Ekonomi Kudeaketarako Zuzendaritzaren menpe dagoen Kontratazio eta Aurrekontuetarako Unitatearen gain joango da.

7. Goragoko 1 b) idazatian adierazitako kontratuei dagokienez, honako arau hauei jarraiki jokatuko da:

1) Oinarri-arauen pleguak, hori egitea dagokion organua onartu aurretik, Antolaketa eta Sistemen Zuzendaritzaren arauzko erizpena jaso beharko dute, hamabost eguneko epearen barruan, 20.1.1 ataleko b) idazatian adierazten diren eta ez beste ondorioetara-

a) Contratos de suministros.

b) Contratos incluídos en el artículo 2.º del Decreto 77/1983, de 11 de abril, referidos a bienes y servicios informáticos, entendiéndose por tales los previstos en el artículo 3.º del citado Decreto.

c) Cualesquiera otros de naturaleza análoga a los anteriores.

Quedan excluídos de la previsión anterior los contratos referentes a «sistemas informáticos horizontales», que son los que tienen por objeto nóminas, registros de personal, contabilidad y presupuestos o los que, en su caso, se definan con tal carácter por la Comisión Técnica de Organización e Informática del Gobierno Vasco.

2. El Director de Recursos Personales y Gestión Económica de la Viceconsejería de Justicia es el Organo de Contratación competente para la realización de los actos precisos para la celebración y formalización de los contratos contemplados en las letras a), b) y c) del número anterior.

3. La Mesa de Contratación está integrada por el Presidente, los Vocales y el Secretario.

a) El Presidente será un representante de la Viceconsejería de Justicia, designado por el Director de Recursos Personales y Gestión Económica.

b) Los Vocales serán:

— Dos representantes de la Viceconsejería de Justicia, según el área de actuación a que se refiera el objeto del contrato, designados por el Director de Recursos Personales y Gestión Económica.

— Un representante de la Dirección de Intervención del Departamento de Hacienda y Finanzas, designado por el Director de Intervención.

— En las contrataciones contempladas en el número 1.b), un representante de la Dirección de Organización y Sistemas de la Viceconsejería de Administración y Función Pública, designado por el titular de dicha Dirección.

c) El Secretario será un Técnico adscrito a la Dirección de Recursos Personales y Gestión Económica con título de Licenciado en Derecho, que tendrá voz pero no voto.

4. La Mesa de Contratación tendrá como funciones el análisis de la documentación jurídica presentada por los licitadores, la realización de la apertura de plicas, así como la propuesta de adjudicación de los contratos al Organo de contratación.

5. Los pliegos de bases técnicas serán redactados por las Unidades Administrativas de la Viceconsejería de Justicia, según la procedencia del expediente de contratación.

6. La redacción de los pliegos de condiciones administrativas particulares y el informe jurídico corresponderán a la Unidad de Contratación y Presupuestos, dependiente de la Dirección de Recursos Personales y Gestión Económica.

7. En relación con los contratos contemplados en el párrafo 1 b), se observarán las siguientes reglas:

1) Los Pliegos de Bases, antes de su aprobación por el órgano correspondiente, deberán informarse preceptivamente por la Dirección de Organización y Sistemas en el plazo de quince días naturales y a los sólos efectos previstos en el artículo 20,1.1. apartado

ko. Adierazitako epe horren barruan txostena bidaltzen ez bada, erizpena aldekoa dela ulertuko da eta aurrera egin ahal izango da espedientearen izapideketan. Erizpena kontrakoa gertatuz gero, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailak erabakiko du auzia.

2) Ondasun eta zerbitzu informatikoen arloan ahalik eta koordinaziorik haundiena lortzearren, Zuzentza Sailordetzak egindako kontratuen zerrenda aurkeztuko dio urtero Antolaketa eta Sistemen Zuzendaritzari, eta orobat horien gauzaketaren eta Zuzentza Administrazioaren Plan Informatikoa betetzearen inguruko oroit-idazki bat ere«.

*4. atala.*– 20. atalaren aldakuntza

1. Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailaren egitura organikoa ezarri zuen apirilaren 19ko 89/1988 Dekretuaren 20.1.1. ataleko b) apartadua honela geratuko da erredaktaturik:

«b) Zuzentza Administrazioari dagokion Plan Informatikoa egitea, Eusko Jaurlaritzak urtero eman beharreko onarpena eman diezaion. Plan horretan ondasun eta zerbitzu informatikoei buruzko programak eta aurrikuspenak sartuko dira.

Aipatutako plan horri buruzko arauzko txostena egin beharko du Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Saileko Administrazio eta Funtzio Publikorako Sailordetzako Antolaketa eta Sistemen Zuzendaritzak, hamabost eguneko epearen barruan, honako hauei dagokienez: sistema horizontalen inkardinazioa eta tratamendua, Eusko Jaurlaritzaren datu transmisiorako sarearen erabilpena eta informazioaren transmisiorako kontsideratzen diren ekipoen eta Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren informaziorako sistemen euskarri direnen arteko bateragarritasun teknikoa».

2. Era berean, honako idazati hauek gehituko zaizkio 20. atalaren idazketari:

«c) Aipatutako Plan horren ondoriozko zerbitzu informatikoak eskaintzea, eta halaber horren sustapena, segimendua eta kontrola, Administrazio eta Funtzio Publikorako Sailordetzako Antolaketa eta Sistemen Zuzendaritzari leporatutako informatikaren orokorreko ikuskaritzarako zereginen kaltetan izan gabe; zeregin horiek apirilaren 19ko 89/1988 Dekretuaren 16.1.i) atalean ezarritakoaren arabera Zuzendaritza horri dagozkion eskuduntzen ondoriozkoak dira.

d) Berariaz leporatzen ez zaion beste edozein zeregin, baldin eta horrek, medio informatikoez baliatzearen bidez, Zuzentza zerbitzu publiko moderno eta eraginkor bat lortzebidean aurrerapena ekarriko badu».

3. Ezabatuta geratuko da hedapen gaiei buruzko 1.3 puntua.

4. Halaber, puntu berri bat gehituko da, 2 zenbakiduna, honako idazkera honekin:

«2. Lurralde Historikoetako hiriburuetan dauden Zuzentza Jauregietan kokatutako Kudeaketarako Unitate Teknikoak (K.U.T.) Antolaketa eta Baliabide Materialen Zuzendaritzaren menpe egotera igaroko dira organikoki, eta Sailordetzaren gainerako organuen menpe egotera funtzionalki, eta honako zeregin hauek beteko dituzte:

a) Zuzentza Sailordetzako unitate guztien arteko etengabeko estekaketarako organu izatea, sailordetza

b). La falta de remisión del informe, en el plazo anteriormente señalado, dará lugar a que se entienda que es favorable y podrá proseguirse la tramitación del expediente. Si el informe fuera desfavorable, resolverá la cuestión el Consejero de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico.

2) Al objeto de lograr la máxima coordinación en materia de bienes y servicios informáticos, la Viceconsejería de Justicia presentará anualmente a la Dirección de Organización y Sistemas una relación de los contratos celebrados, así como una memoria sobre la ejecución de los mismos y cumplimiento del Plan Informático de la Administración de Justicia».

*Artículo 4.*– Modificación del artículo 20

1. El apartado b) del artículo 20,1.1. del Decreto 89/1988, de 19 de Abril, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico, queda redactado de la siguiente forma:

«b) Elaborar el Plan Informático correspondiente a la Administración de Justicia para su aprobación anual por el Gobierno Vasco. En el Plan se incluirán los programas y previsiones de acción con respecto a bienes y servicios informáticos.

El citado Plan será objeto de informe preceptivo, en un plazo de quince días naturales, por la Dirección de Organización y Sistemas de la Viceconsejería de Administración y Función Pública del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico, en lo relativo a la incardinación y tratamiento de los sistemas horizontales, utilización de la red de transmisión de datos del Gobierno Vasco y compatibilidad técnica de los equipos considerados a los efectos de transmisión de información con los que soportan los sistemas de información de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco».

2. Asimismo se añaden a la actual redacción del artículo 20 los siguientes apartados:

c) La prestación de los servicios informáticos derivados del referido Plan, así como su promoción, seguimiento y control, sin perjuicio de las funciones de inspección informática general, atribuídas a la Dirección de Organización y Sistemas de la Viceconsejería para la Administración y Función Pública, que se derivan de las competencias correspondientes a la citada Dirección, según lo establecido en el artículo 16.1.i) del Decreto 89/1988, de 19 de abril.

d) Cualesquiera otras funciones no atribuídas específicamente que contribuyan, mediante la utilización de medios informáticos, a la consecución de un servicio público de Justicia moderno y eficaz».

3. El punto 1.3 referido a la materia de difusión queda suprimido.

4. Igualmente se introduce un nuevo punto, el número 2, con la redacción siguiente:

«2. Las Unidades Técnicas de Gestión (E.A.T.) ubicadas en los Palacios de Justicia radicados en cada capitalidad de los Territorios Históricos, pasan a depender orgánicamente de la Dirección de Organización y Recursos Materiales y funcionalmente de los demás órganos de la Viceconsejería, ejerciendo las funciones siguientes:

a) Servir de órgano de enlace permanente con todas las Unidades de la Viceconsejería de Justicia

horren eta beraren iharduera esparruko organu judizialen arteko harremanak bizkortzearren.

b) Bakoitzaren iharduera esparruko organu judizialen kudeaketari eragiten dioten mota guztietako beharrei erantzuteko zuzeneko laguntza ematea; hala behar izanez gero, eskudun den unitate administratibora bideratuko dute eskaria.

c) Bakoitzaren iharduera esparruko organu judizialetan sortzen den aurrekontuen inguruko dokumentazioaren kudeaketa egitea, hasiera batean, horri dagokion arauteria era zuzenan aplikatzen den kontrolatuz».

5. Honela geratuko da idatzita 20. atal berorretako 3. puntua:

3. Honako Unitate hauek egongo dira Zuzendaritza horren menpe:

– K.U.T.en antolakuntza eta koordinaketa.
– Informatika.
– Obrak eta Ondarea.

5. *atala.*— 21. atalaren aldakuntza.

1. Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailaren egitura organikoa ezarri zuen apirilaren 19ko 89/1988 Dekretuaren 21. ataleko 1.2 puntuak honako aldaketa hauek izango ditu:

a) «Aurrekontu-kudeapenaren gaietan» espresioaren ordez honako hau jartzen da: «Kontratazioari eta aurrekontuen kudeaketari dagozkion gaietan».

b) Honela geratuko da erredaktatuta c) idazatia:

«c) Kontratazio Organu gisa, Zuzentza Administraziorako diren horniketei buruzko zein beste informatikaren alorreko beste edozein ondasun edo zerbitzuri buruzko espedienteak izapidetzea eta horietaz erabakitzea; halaber, horien ondorioz egin beharreko kontratuak gauzatzea».

c) Honako idazati hau gehituko da c) apartaduaren ondoren:

«d) Horretaz gain, Zuzentza Administraziorako izanik, egin beharreko gertatzen den beste edozein ekintza edo kontratutan Kontratazio Organuari dagozkion zereginak burutzea».

2. Ezabatu egingo da 2. puntua.

3. Honela geratuko da idatzita aipatutako 21. ataleko 3. puntua:

«2. Honako Unitate hauek egongo dira Zuzendaritza honen menpe:

– Langilegoa.
– Kontratazioa eta Aurrekontuak.
– Laguntzarako zerbitzuak».

INDARGABETZE XEDAPENA

Dekretu honetan ezarritakoaren kontrako gertatzen den orotan, indargabeturik geratzen dira uztailaren 30eko 97/1981 Dekretua, otsailaren 1eko 60/1982 Dekretua eta apirilaren 11ko 77/1983 Dekretua, eta orobat maila bereko edo beheragoko beste edozein xedapen, honekin kontraesanean dagoen edo bateraezin gertatzen den orotan.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENA

Ogasun eta Finantza Sailak Dekretu hau aplikatu eta garatzeko beharrezko gertatzen diren transferen-

con el fin de agilizar las relaciones entre ésta y los órganos judiciales de su ámbito de actuación.

b) Prestar apoyo directo para atender las necesidades de todo tipo que afecten a la gestión de los órganos judiciales de cada ámbito de actuación, canalizando, en su caso, la demanda a la unidad administrativa competente.

c) Llevar la gestión, en su fase inicial, de la documentación presupuestaria que se genera en los órganos judiciales de su ámbito de actuación, controlando la correcta aplicación de la normativa correspondiente».

5. El punto 3 del mismo artículo 20 quedará redactado de la siguiente manera:

3. Dependerán de esta Dirección las Unidades siguientes:

– Organización y coordinación de las E.A.T.
– Informática.
– Obras y Patrimonio.

*Artículo 5.*— Modificación del artículo 21.

1. El punto 1.2 del artículo 21 del Decreto 89/1988, de 19 de Abril, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico, tendrá las siguientes modificaciones:

a) La expresión «En materia de gestión presupuestaria» se sustituye por «En materia de contratación y gestión presupuestaria».

b) El apartado c) quedará redactado así:

«c) Tramitar y resolver, como Organo de Contratación los expedientes relativos a suministros y cualesquiera otros referidos a bienes y servicios de carácter informático con destino a la Administración de Justicia, formalizando, igualmente, los contratos dimanantes de los mismos».

c) A continuación del apartado c) se añade el siguiente apartado:

«d) Ejercer, además, las funciones que corresponden al Organo de Contratación en cualesquiera otros actos ó contratos que se precisen formalizar con destino a la Administración de Justicia».

2. Queda suprimido el punto 2.

3. El punto 3 del referido artículo 21 quedará redactado así:

«2. Dependerán de esta Dirección las Unidades siguientes:

– Personal.
– Contratación y Presupuestos.
– Servicios de apoyo».

DISPOSICION DEROGATORIA

En cuanto se oponga a lo establecido en el presente Decreto, quedan derogados el Decreto 97/1981, de 30 de julio, el Decreto 60/1982, de 1 de febrero y el Decreto 77/1983, de 11 de abril, así como cualquier otra disposición de igual o inferior rango en todo aquello que contradiga o sea incompatible con el mismo.

DISPOSICION FINAL PRIMERA

Por el Departamento de Hacienda y Finanzas se realizarán las modificaciones y transferencias presu-

tziak eta aldakuntzak egingo ditu aurrekontuetan.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Dekretu hau aplikatu eta garatzeko beharrezko gertatzen diren xedapenak emateko ahalmena izango du Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburuari.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean Dekretu hau.

Gasteiz, 1990.eko maiatzak 8.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lehendakaritza, Zuzentza
eta Autonomi Garapenerako Sailburua,
JUAN RAMON GUEVARA SALETA.

puestarias precisas para la aplicación y desarrollo del presente Decreto.

DISPOSICION FINAL SEGUNDA

Se faculta al Consejero de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

DISPOSICION FINAL TERCERA

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 8 de mayo de 1990.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Presidencia, Justicia
y Desarrollo Autonómico,
JUAN RAMON GUEVARA SALETA.

# Beste zenbait Xedapen
# Otras Disposiciones

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

1651

AGINDUA, 1990.eko apirilaren 26koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarena, 1990/91 ikasturtean zehar kurrikulak berritzeko proiektuak burutu ditzaten eta ekainaren 29ko 10/1988 Legean ezarritako Hitzarmen partikularrak dituzten Ikastolentzako eta Euskal Autonomi Elkartean beren egoitzak dituzten unibertsitatez besteko irakaskuntzak ematen dituzten itunepeko Ikastetxeentzako dirulaguntzetarako deialdia egiten duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, irakaskuntzaren berrikuntza indartzeko eta horri laguntzeko konpromezuari jarraituz eta txikitxoentzako, lehenengo eta bigarren mailako Hezkuntzaren erreformak duen garrantzia kontutan hartuz, honako hau nahi du, hau da, berritasundun iniziatibei laguntzea eta horiek indartzea, ikastetxeak sortzen ari diren eta kurrikulumarekin eta materiale didaktikoekin lotura duten aldeei dagozkienetan. Iniziatiba hauei laguntzeak, egunero lana eta, funtsean, gure ikastetxeetako hezkuntza praktika bizkortu eta indartu egingo duela uste da.

Oinarrizko Taiuketa Kurrikularra, zabala da eta malgutasunduna, garapen kurrikular ezberdinetarako bide ematen duena, hau da, ikastetxe bakoitzeko zirkunstantzia bereziei egokitzeko modukoa da. Orientabidezko gida bat da eta honako hau da bere helburua: Proiektu kurrikularrak, programazio bereziak eta praktika berrikoietarako bideak eskainiko dituzten materialeak, irakasleek sor ditzaten laguntzea.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

1651

ORDEN de 26 de abril de 1990, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan ayudas económicas a Ikastolas firmantes de los Convenios particulares previstos en la Ley 10/1988 de 29 de Junio y a Centros concertados de niveles no universitarios del País Vasco que realicen proyectos de innovación curricular durante el curso 1990/91.

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación, consecuente con su compromiso de fomentar y favorecer la innovación de la educación, y teniendo en cuenta la importancia de la reforma prevista para la Educación infantil, primaria y secundaria, pretende apoyar y alentar las iniciativas de carácter innovador que, en lo que respecta a aspectos relacionados con el currículo y con los materiales didácticos para su desarrollo, vayan creando los centros. Se entiende que el impulso a estas iniciativas servirá de estímulo y apoyo al quehacer diario y en definitiva a la mejora de la práctica educativa en nuestros centros.

El Diseño Curricular Base está organizado con una estructura abierta y flexible que permite diferentes desarrollos curriculares, esto es, favorece su adaptación a las circunstancias concretas de cada centro. En definitiva, se trata de una guía orientadora que pretende favorecer a los profesores la creación de proyectos curriculares de centro, programaciones específicas y materiales que posibiliten una práctica innovadora.